

Pako Sodupe

IDAZLEA

Eskola-umeen euskarazko adierazkortasuna!

9

urteko semeak egin berri du hiru eguneko txangoa. Zertan eman duzue denbora? Batzuek antzerkia egiten, eta besteek *futbolinean*; ni *futbolinean*. Antzerkian, seme, aukera daukazu beste pertsonaia batzuk izateko, besteren larruan sartzeko, beste modu batera hitz egiten ikasteko edo aritzeko behinik behin. Baina, aita, ez dute testua ikasi, antzerki fisikoa egin dute, hara eta hona ibili dira...

Futbolinean onenak gu lauok izan gara, aita! “Bi kontra bi” jolastu gara, urlia “superona” da “bolillakin” ematen, sandia “baselinetan” eta ni “trallazo”ekin “gol fantasmak” sartzen. Gero denak guri begira, eta lau onenak “partidazoa” jokatu genuen, “golazoak” sartu genituen, bederatzi eta bederatzi, eta azkena guk sartu genuen; orduan pozarekin futbolina mugitu nuen (kristona...!).

Ez dakit zenbat aldiz esan diodan “bi bi” ez baizik eta “bi eta bi” esaten dela euskaraz, gaztelaniaz ez bezala —orain ondo esaten du gehienetan—; eta beste horrenbestetan, “bi bitara” edo “bi biren kontra”, baina honetan gehiagotan egiten du huts. Komatxoan artean ipini ditudan hitz edo esapide horiek behin eta berriz esaten ditu, hitz horiek bereganatua diote bihotza, neke da horiei aurre egitea. Euskaraz-



DANI BLANCO



Gaztelaradunek lortu dute
D ereduan ikasten duten
haurrek horrela hitz egitea.

Guk, euskal gurasook
galdua ote dugu euskara
gatz-piperduna, ba ote dugu
geuk espresibaterik
euskaraz ari garela?



ko salbuespena: “Tripa-jotzen” izan liteke. Zer da tripa-jotzea, seme? Barillarekin superfuerte jotzea eta orduan begira dagoenak tripakoa hartzen du, tripan kolpea.

Gaztelaradunek lortu dute D ereduan ikasten duten haurrek horrela hitz egitea. Guk, euskal gurasook galdua ote dugu euskara gatz-piperduna, ba ote dugu geuk espresibaterik euskaraz ari garela? Ala umeek bezala, geuk ere erdaratik lortzen dugu espresibitatea? Irakasleek eurek ba ote dute adierazkortasunik euskaraz, eskolaumei txertatu ahal izateko? Eta euskal hedabideetako esatariak? Kontua da, nik uste, ez dugula lortu: “Efektua(re)kin jotzea, (gurpila) ematea, baloi-harrotzea edo bola-loratzea, zartakoz mamu-gola sartzeta, partida itzela (mundiala, berebizikoa), gol (mundiala...)” nagusiaraztea.

Gurasook, beharbada, gutxi(egi) hitz egiten dugu haurrekin; eskoletan, beharbada, hizkuntzaren adierazkortasuna ez da behar bezala lantzen; eta hedabideen aldetik, menturaz, gutxitxo ditugu euskaraz. Baina zer euskara klase dugu hori! Erdaraz egitea baino hobea! Bai, bai!, baina zer euskara klase dugu hori! Badugu hor zeregina guraso, irakasle, esatari eta erakundeek. ■



TXANDAN

Igor Estankona



Profeta da Euskal Herrian. Kontzertu onak eta txarrak txalotu dizkiogu. Gurtu egiten dugu gurean, eta ez da guztiz sana berarekiko dugun maitasun itsua. Baina abestien letrek duten ereserki sinpleen itxura folk horrek liluratu egiten gaitu. Aspaldi eskatu nion Ruperrri abesti bakar bat esateko, eta erantzun zidan: “Dylanen edozein”.

Dylan Thomas poeta galesak beste berrogeita hamar urte deroaz berpizturik beraz, 1962ko martxoaren 19an Bob Dylanek *Bob Dylan* argitaratu zuenetik. Ez Dok Amairukoek ere zor diote zerbait, Mixel

Dabilen harria

Labeguerie entzunez iritsi zitzaientetik aire hura: “Zenbat itzuli emanen du bonbak,/ Hondarrean dadin hondar?/ Zenbat belaunek dio iritziko/ Armen etsaiari koldar?/ Zenbat galbide behar dun iragan,/ Uso zuri hego-baldar?/ Haizean dabil erantzun oro/ Haizean erantzun oro”.

Momentu bakoitzerako abesti bat daukana, desgainatu gaituena baina inoiz ez engainatu, haize hori bezain badezpadako Dylan, joan da Woody Guthrie faltsu hori, maitagarri hori; ea nondik jotzen duen haren ufadak hurrengoan. ■

